

Kostuen Egitura

Negozio-eredua osatzeko beharrezkoak diren kostu guztien multzoa da kostuen egitura. Kostuak bi motatakoak izan daitezke:

- **Kostu finkoak:** beti berdin mantentzen direnak.
- **Kostu aldakorak:** ekoizten diren produktuen kopuruaren arabera aldatzen direnak.




Gure enpresari erreparatuz, argi dago gure enpresak lokal handi baten beharra duela gure produktua ekoitzi eta gorde ahal izateko. Beraz kostu finkoei buruz hitz egiten badugu, kostu bakarra lokalaren alokairua da. Horrez gain hainbat kostu aldakor izango ditugu: Langileen soldatak, energia kostuak eta abar.




Gure enpresaren kostuen estimazio bat egitekotan, hurrengo kostuak izango genituzke, Zumarragako herrian ekoitziko dugula kontuan hartuta:

- **Kostu finkoak:** 200 metro karratuko lokal bat Zumarragako industrialdean, 950 euro hilabeteko.



- **Kostu aldakorak:**

- Langileen soldata: 400 euro 35 orduko lanaren truke.
- Elektrizitatearen kostua: 20,30 € 180kWh-ko.
- Burdinaren prezioa: 50€ burdin kiloko.



Azkenik, kostu finko eta orkorak batzen baditugu, gure enpresak izango dituen kostu totalak aurreikusi ditzazkegu.